



ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEN DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETA ARAUTU BEHAR DUTEN ARAUAK (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA)

Lehiaketaren helburu espezifikoak.

Modu espezifikoan, San Josepeko harrobiaren hutsartearen eta Arrasatetik gertuko ingurunearen etorkizuneko diseinua egiteko ideien lehiaketaren helburua da, besteak beste, hauek egin ahal izateko soluziobideak bilatzea:

- Ahalik eta modurik onenean txikitzea harrobiaren hutsarteak mendian sortzen duen ikus eta paisaia eragina, oso kalteturik dagoen gune batean ingurumena errekupeartzeko proiektua bat garatzeko, eta, horrela, ekintza positiboa sortzea, Arrasaten gune fisiko horren oraingo hondamenari aurre egiteko.
- Ahalik eta modurik onenean txikitzea ere Eibar-Gasteiz autopistak AE 58.- SAN JOSEPE HARROBIA eremutik pasatzean sortuko duen eragin kaltegarria.
- Berrerabili eta aprobetxatzea ahalik eta modurik egokienean harrobiaren hutsarteak ematen digun gune fisiko zabala, eta horretarako hirigintza eta eraikuntza proiektu bat diseinatzea, leku horren gizarte eta ekonomia arloko berrerabilera altua izateko, bai eta hor planteatuko diren erabilerenak eta eraikuntzenak ere. Eraikigarritasunak, proposatutako erabilerak eta egokitzat jotzen diren gainontzeko aldagaiek bermatu egin behar dute esku-hartzearen bideragarritasun ekonomikoa eta soziala, bere osoan. Horregatik, lehiatzaileek aztertu beharko dute zer planteatu, adibidez, irabazteko erabilerak, hornitzeko erabilerak eta/edo horien arteko proportzioa. Orientazio gisara, harrobiaren hutsartean kokatu daitezkeen erabilera batzuk zerrendatu ditugu:
 - Bizitegia edo etxeak: betiko bizitegiez gain, lehiatzaileek aztertu dezakete estandarra ez den familia egituretarako edo beste kolektibo batzuen egituretarako lojamendu tipologia berriak sortzeko aukera.
 - Jarduera ekonomikoak, bate zere zerbitzuei lotutakoak, baina industria erabilerakoren bat albora utzi gabe.
 - Eredu ludikoa eta sozializatzekoak.
 - Hornidura publikoa, aisialdiari, denbora libreari eta kirolari lotutakoak barne.
 - Lurzoruaren erreserba estrategikoak, epe ertain eta luzera garatzeko.
- Uztartzea proiektua bere gertuko ingurunearekin, diseinuak jaso dezan ere zelan ezarriko den modu egokian lurralde horretan eta harrobiaren oraingo gune fisikoak izan dezan irisgarritasun



egokia, oinezkoen irisgarritasunaren ikuspegitik nahiz trafikoaren ikuspegitik (motorduna eta motor gabea). Orain dauden sarbide zailtasunak eta oztopo arkitektonikoen zailtasunak gainditzea da helburua, izan ere, proposatutako proiektuaren erabilera eta aprobetxamendu egoki, eraginkor eta zuzena praktikatzeko, guztiz ezinbestekoa da erraztea, maila guztietan, espazio edo gune horretara iristeko bidea.

- Harrobi ingurutik gertu dauden eskualde apalak biziberritzeko motorea izan daitezkeen proiektu bat proposatzea.
- Berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzea, arkitekturan, ingeniartzan, iraunkortasunean, energia aprobetxamenduan (kontserbazioa eta aurrezpena; aprobetxamendua eta energia berriztagarriak).
- Oro har, Euskal Herriko harrobi guztietan errepikatu daitezkeen kontzeptu berritzaileak garatzea. Hain zuzen ere, harrobiak errekuaratzea ezinbesteko lana izango da, gure herrialdean leku gutxi baitugu, eta Lehiaketa honek lortu nahi du halako proiektuetan maila kualitatibo handiko joera bat ezartzea, antzeko arazoak dituzten beste udalerrri batzuetan antzeko proposamenetan erreferentzia izateko, adibidez, Makina, Durango, Elgoibar, Deba, Andoain, Urnieta, Zestoa, eta abar moduko herrietan.